

Jesusen Bihotza Mundaiz Ikastetxea

ESKOLAZ KANPOKO

JARDUERAK

HAUR HEZKUNTZA

2024-25 IKASTURTEA



Sagrado Corazón Mundaiz

Guraso agurgarriok:

Honen bitartez 2024-25 ikasturterako ikastetxean aurreikusita ditugun eskolaz kanpoko jardueren eskaintza jakinarazi nahi dizuegu.

Izar Leku kluba: Gimnasia erritmikoa (Haur Hezkuntzako 4-5 urte)



Gimnasia erritmikoa musika-koordinazioa eta erritmoa dotoretasunarekin eta tapizaren gaineko trebetasunarekin uztartzen ditu. Jendaurrean egindako ariketen aurkezpenak arrakasta du entrenamendu-ordu askoren ondoren. Baina kirol honengatik pasioak sakrifizio guztiek gutxi irudi dezatela lortzen du.

Informazio gehiagorako: [Izar Leku](#)

Lacunza: Ingelesa (Haur Hezkuntzako 4-5 urte)

Mundaiz eta Lacunza akademia ados jarri dira eskolaz kanpoko ingeleseko klaseak antolatzeko eta kudeatzeko. Kalitatezko irakaskuntza irakasle natiboekin eskaintzen da, ezagueraren hobekuntza esanguratsua izateko eta trebetasun linguistikoak bermatzeko asmoz.

Informazio gehiagorako begira ezazue [esteka](#) honetan.



Aloha-Kitsune (Haur Hezkuntza 3-5 urte)

KITSUNE: Haur Hezkuntzako ikasleei zuzendutako estimulazio goiztiarraren inguruko programa da. Metodologiari dagokionez, hiru dimentsio hauek lantzen ditu:

1. Manipulazio-matematikak: Oxfordeko Unibertsitateak diseinatutako materialekin, haien adimen logiko-matematikoa indartuko dute, funtsezkoa baita garatzeko eta ikasteko. ([bideoa](#))
2. Adimen emozionala: Saioretan Kitsuneko ikasleek haien emozioen identifikazioa eta ezagutza lantzen dituzte, xede horretarako, garrantzi handiko zenbait gaitasun garatzen dituzte, hala nola, bulkaden kontrola, autokontzientzia, motibazioa, pertseberantzia, enpatia...
3. Psikomotrizitatea: Kitsune programak garapen sensoriomotor, afektibo, kognitibo eta soziala bultzatzeaz gain, idatzi eta irakurtzeko oinarriak finkatzen ditu. ([bideoa](#))

Web: <https://www.kitsune3d.com/eu/home/>

Bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=WGwgs4vDqA4>





Haurrak beti jolasean (Haur Hezkuntzako 4-5 urte)

Haurrek ordubete pasatzen dute hezitzailearekin jokoak, abestiak, antzerkiak, eskulanak eta jarduera ludikoak egiten euskaraz, giro lasaian. Hezitzaileak saiatuko dira haurrek ahalik eta gehien komunikatu eta hitz egin dezaten, ondo pasatuz eta euskaraz soilik hitz eginez.

Helburuak:

- Euskara haurren arteko hizkuntza naturala izateko urratsak ematea. Euskara eskola eta gelako hizkuntza soilik ez izatea.
- Euskarak lagun artean, eskolatik kanpo, egoera informalago batean, jolasteko, lagunekin hitz egiteko, ondo pasatzeko, tarteka haserretzeko ere balio duela praktikan erakustea.
- Helburua ez da euskara ikastea, baina hizkuntza zenbat eta gehiago erabili orduan eta hitz jario hobea izango dute haurrek, haien artean euskaraz hitz egitea naturalagoa egingo zaie, eta euskara maila ere hobetuko dute.



Patinajea (Haur Hezkuntzako 5 urte)

Patinaje-eskola hockeyko harrobi nagusia da Mundaizen. Gainera, mugimenduen eta ariketen bidez oreka garatzen eta gorputzaren harmonia mantentzen duen jarduera da.




Tenis (Haur Hezkuntzako 3-5 urte)

“Tenis en mi cole” kirol-proiektu bat da, eta haren helburua da edozein ikastetxek, tenis-pistarik izan gabe, ikasle gazteei kirol horretan hasteko aukera ematea, lehen mailako tenis-eskola batean egingo lituzkeen baldintza beretan, baina ikastetxetik atera gabe.

Guk sarea, lerroak, erraketak, pilotak eta tenis-pista muntatzeko eta jarduera egiteko behar den material guztia ematen dugu.

Talde profesionala gara, eta tenisaren irakaskuntzaren maila guztietan esperientzia handia dugu: hastapenetik (haurrak tenisean lehen urratsak egiten trebatzen) goi-mailako lehiaketara (ATP zirkuitu profesionaleko jokalaririk).





Sagrado Corazón Mundaiz

EBALUAZIO SISTEMA

Eskolaz kanpoko jardueren ebaluazioa egingo da. Hiruhilekoaren bukaeran irakasleak ikaslearen txosten pertsonala osatuko du eta gurasoei bidaliko die.

JARDUEREN ORDUTEGIA ETA IRAUPENA

Jarduera bakoitzaren ordutegiak esteka honetan topatuko dituzue: [ordutegiak](#).

Jarraian jarduera bakoitzaren hasiera eguna duzue:

- **Ingelesa (Lacunza)** irailaren 9ko astean hasiko da.
- **Gimnasia erritmikoa** irailaren 16ko astean hasiko da.
- **Patinajea** irailaren 16ko astean hasiko da.
- **Aloha-kitsune (3 urte salbu)** urrian hasiko da.
- **Aloha-kitsune 3 urte** urtarrilaren 6ko astean hasiko da.
- **Haurrak beti jolasean** urriaren 14ko astean hasiko da.
- **Tenisa** urrian hasiko da.

IZEN-EMATEA, PREZIOAK ETA ORDAINTZEKO MODUA

Esteka honetara zuzendu jarduera bakoitzaren prezioak topatzeko: [prezioak](#).

Beste esteka honetan izen-ematea egin daiteke: [izen-ematea](#).

Izen-emate epea: abuztuaren 26tik irailaren 4ra.

Oro har, ikasturtearen prezio osoa 8 kuotatan banatuko da (urritik ekainera bitarte). Kuota banketxez pasatzen den ikastetxeko hilerokoari erantsiko zaio.

Jarduera batzuk berezko ordaintzeko modua dute.

Edozein jardueratarako izen-emateak **gutxieneko konpromisoa** ekartzen du: **4 kuota**. Behin jarduera hasita, ez da baxarik onartuko ezta kuotarekin proportzionala den zatia itzuliko.

ARDURADUNAK ETA IRAKASLEAK

Koordinatzailea:	Patricia Tejero (ekj@gmundaiz.com)
Lacunza:	Marina Scifo (marina.scifo@lacunza.es)
Aloha-Kitsune:	Alai Proiektuak (info@alaproiektuak.eus)
Patinajea:	Daniel Alonso (hockey@gmundaiz.com)
Izar Leku kluba:	Itziar Beluche (itziarbeluche.ritmica@gmail.com)
Haurrak beti jolasean:	Agurtzane Altuna (agurtzane@kiriketan.com)
Tenisa:	José Manuel Goikoetxea (tenisenmicole@gmail.com)



Sagrado Corazón Mundaiz

ARAUDIA

- Taldeek **ikasle-kopuru mugatua** izango dute eta izen-ematearen orriaren arabera osatuko dira. Bajak **itxarote-zerrendaren ordenaren arabera** osatuko dira.
- Izena eman duten ikasle kopurua taldea osatzeko nahikoa ez bada, jarduera ez da martxan jarriko eta gurasoei jakinaraziko zaie.
- Ikasleek ezin izango dute izena eman asteroko bi orduko den eta ordutegi-interferentziagatik edo beste zirkunstantzia bategatik egun batean soilik joan daitekeen jardueran.
- Edozein jardueratarako izen-emateak **gutxieneko konpromisoa** ekartzen du: **4 kuota**. Behin jarduera hasita, ez da baxarik onartuko ezta kuotarekin proportzionala den zatia itzuliko.
- **Asistentzia eta puntualtasuna.** Asistentzia nahitaezkoa da. Hutsegiteak eta puntualtasun faltak errepikatuz gero, gurasoei jakinaraziko zaizkie eta berriro gertatuz gero, jardueran baja arrazioa izan ahal izango dira.
- Ikasle guztiak **ikasgela garbiak mantentzen, klase-altzariak zaintzen eta bere ikaslagunen eskola-materiala errespetatzen** saiatuko dira. Arratsaldean ikasleak bere klaseetara itzuliko direnean kexak eta ustekabekoak saihestuko dira.

Agur bero bat.

Patricia Tejero



Donostia-San Sebastián, 2024ko ekainaren 10a



Haur Hezkuntza

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA							
JARDUERA	IKASMAILA	KUOTA	ASTEL.	ASTEAR.	ASTEAZ.	OSTEG.	OSTIR.
Lacunza (ingelese) ^{3,4}	4 urte	Pdf		13:40 14:25			
Lacunza (ingelese) ^{3,4}	5 urte	Pdf				13:40 14:25	
Aloha-Kitsune ^{8,9}	3 urte	31,50 €/hila (5 hilak)				13:20 14:20	
Aloha-Kitsune ^{2,6,9}	4 urte	31,50 €/ hila			13:20 14:20		
Aloha-Kitsune ^{2,6,9}	5 urte	31,50 €/ hila	13:20 14:20				
Izar Leku kluba Gimnasia erritmikoa ^{2,5}	4 urte	20,50 €/ hila				13:35 14:25	
Izar Leku kluba Gimnasia erritmikoa ^{2,5}	5 urte	20,50 €/ hila		13:35 14:25			
Patinajea ^{2,5}	5 urte	17,50 €/hila			13:20 14:20		
Haurrak beti jolasean ^{7,10}	4 urte	C modulua ¹⁰	13:30 14:25		13:30 14:25		
Haurrak beti jolasean ^{7,10}	5 urte	C modulua ¹⁰	13:30 14:25				13:30 14:25
Tenisa ^{1,2,6}	4 urte	27,50 €/hila	13:20 14:20				
Tenisa ^{1,2,6}	5 urte	27,50 €/hila					13:20 14:20

¹ Jarduera berriak 2024-25

² Ordainketa 8 hilabetetan egingo da, urritik maiatzera

³ Informazio gehiagorako: [Lacunza](#)

⁴ Jardueraren hasiera: irailaren 9ko astean

⁵ Jardueraren hasiera: irailaren 16ko astean

⁶ Jardueraren hasiera: urriak 1ko astean

⁷ Jardueraren hasiera: urriak 14ko astean

⁸ Jardueraren hasiera: urtarrilaren 6ko astean

⁹ Ikasle guztiek 24 € ordaindu egin beharko dute material-kontzeptuan.

¹⁰ Haurrak beti jolasean (C modulua): arrunta, 144,90 €/urtea; familia ugaria edo guraso bakarrekoa, 108,67 €/urtean; familia ugari berezia, 72,45 €/urtean; gizarte laguntzadun familia, 14,49 €/urtean. Bi kuotatan kobratuko da: urrian eta abenduan. C moduluan izan ezik, deskontua egin ahal izateko ezinbestekoa da eskolaz kanpoko arduradunari beharrezko dokumentazioa helaraztea.